

**ORTZAIZEKO
HERRIKO
ETXEA**
—
MAIRIE
D'OSSÈS

2023 KO URTEKARIA

AURKIBIDEA

Aurrekondua- 2

Estado zibila - 5

Hirigintza - 5

Hilerria-11

Ortzaizeko bizia- 12

Herriko Zerbitzu Soziala - 20

Herriko ontasunak - 21

Eskolak - 22

Kultura - 25

Obrak - 27

Garapen iraunkorra-30

Laborantxa - 31

Nahas Mahas - 32



AUZAPEZAREN HITZA

2023 urtean gogoeta frango ereman ditugu bai eta proiektu zombait gauzatu.

Herritarrekin partekatu ditugun bilkuretan, argiki agertu da herri barnearen berrantolatzeari buruz zuten nahikeria eta interesa.

Arrosategiaren jabetzeak idekitzen dituen bideak aztertu ditugu eta bakotxak bere ikusmoldea adierazi ahal izan du. Herrian diren ontasunen itzuliaren egiteko parada izan da ere.

Urtean zehar eginak izan direnetan aipatzen ahal ditugu Arroza eta Irisarriekin egin diren ur sareen juntatzeak, ondoko urteentzat segurtamena ekarriz. Haurren joko tokia eta autopartekatze gunea arraberrituak izan dira.

Gure herrian, lehen aldikotz iragan den « Eco-habitat » gertakariak arrakasta haundia bildu du, biharko eraikuntza egiteko molde berri batzueri jendea sentsibilizatuz.

Egitarau aberatsa eskainia izan da ere aurtengo Euskararen urtaroaren kariatara, gure kulturaren aniztasuna erakutsiz.

2024 urteari doakionez, webgunearen erabilpenaren errextea, karrikako araztegiaren Gahardurat eremaitea, Ahaizeko elektrikaren lurperatzea eta ur sarearen berritzea baita ere ofizialen guneko bide bazterraren segurtatzeari buruz ikerketaren abiatzea izanen dira gure proiektu nagusietan.

Ahantzi gabe Arrosategiari buruz enpresen hautaketa eta bere diruztatzea.


Bestalde, hirigintza planoak finkatu aitzin, ZAD baten plantan emaita deliberatu dugu. Horri esker, herrian gertatuko diren lur salmenten berri ukanen dugu.

Heldu den urteko ere badugu zer egin!

Azkenik, herriko hautetsi guzien izenean agiantza hoberenak nahi dauzkizuet helarazi, urte berri on bat desiratuz deneri, osagarria lagun.


AURREKONDUA

FUNTZIONAMENDU GASTUAK



Kargu orokorra	1 017 743€
Langileria kargua	320 800 €
Egunerokotasuneko beste karguak	250 500 €
Beste (finantza karguak, ez ohizko karguak, NGIR berriz isurtzea)	28 098 €
Inbertsio sekziora buruzko transferentzia	433 296 €
OROTARA	2 050 428€


INBERTSIO GASTUAK



Bideak eta artzain bideen segurtatzea	275 000 €
Eragiketa desberdin batzu (Herriko eraikinak, garaja baten erostea, josta gunea, obra desberdin batzu ...)	217 900 €
2021eko abenduaren uholdeak	110 000 €
Plazaren antolaketa	100 000 €
Autopartekatze gunea	120 000 €
Maileguen kapitalaren itzultzea	87 000 €
OROTARA	909 900€


AURREKONDUA

FUNTZIONAMENDU DIRU-SARTZEAK



Zerbitzuen emaitza	91 100 €
Zergak	480 448 €
Diru laguntzak	297 130 €
Eguneroko kudeaketako beste diru-sartzeak	80 080 €
Langileriako karguen diru-itzultzea	9 001 €
Aintzineko funtzionamenduaren soberakina	1 092 669 €
OROTARA	2 050 428 €

INBERTSIO DIRU-SARTZEAK



Bideetarako eta artzain bideen segurtatzeko diru laguntza	93 669 €
Katxerenea apartamendua	36 767 €
2021eko abenduko uholdeak	36 457 €
Eragiketa desberdinak (helbideratzea, eskolen tresna numerikoak, artzain bideen panoak)	14 716 €
Inbertsioaren soberakina + funtzionamendu sekzioaren transferentzia	497 889 €
Beste (FCTVA, etxeratze zerga, bermea)	230 402 €
OROTARA	909 900 €

AURREKONDUA

FISKALITATEA

ZERGAK	HERRIKO TASAK 2022	ZERGA OINARRI AURREIKUSPEN AK 2023	HERRIKO TASAK 2023	DIRU SARTZEAK
Eraikiaren gaineko lur-zerga	%30.32	858 900 €	%30.32	260 418 €
Eraikia ez denaren gaineko lur-zerga	%26.67	66 600 €	%26.67	17 762 €
Bigarren etxebizitzaren bizitegi zerga	%19	176 765 €	%19*	33 585 €
OROTARA				311 765 €

*Bigarren etxebizitzaren bizitegi zergaren tasa ez da berrikusi, eraikiaren gaineko lur-zerga proportzio berean bakarrik handitu daitekeelako.

Aldiz, 2023ko agorrilaren 3an, Herriko Kontseiluak erabaki du etxe hutsak bigarren etxebizitzaren bizitegi zergaren tasari lotzea.

ZORRAK

2023an pagatuak: 94 683 € (84 711 € kapitala + 9 972 € interesak)

Zor den kapitala 2023/12/31n: 578 929 €


HERRIKO MAILEGUEN BERRI

MAILEGU MOTA	MAILEGUAREN HASTAPENA	HASTAPENEN KAPITALA	MAILEGUAREN BUKAERA	PAGATZEKO DEN KAPITALA (2023/12/31N)
Xerrenda lotizamenduaren lur eremua	2005/01/21	162 500 €	2025/01/10	12 536 €
Florentzenea	2006/03/10	500 000 €	2026/02/25	67 750 €
Florentzenea berria	2012/02/11	299 225 €	2037/03/01	181 976 €
Arrosategia	2021/06/31	400 000 €	2033/07/21	316 667 €

2024 urtean, mailegu guzien ordaintzeko herriak 94 545 € pagatuko ditu.

SORTZEAK

JIMENEZ DE ABERASTURI CASTEIGTS Sugaar 2023/02/21a
COSTA Eki 2023/02/28a
BEAUMATIN Amandine, Elsa 2023/03/21a
MENTA BROUQUE Izei 2023/04/14a
MARTINON Nathanaël 2023/07/03a
OXOTEGUY Eneko 2023/10/10a
NOYON Isao 2023/12/04a




HERIOTZAK

IRIGOYEN Jean, Pierre 2023/01/07a
MINABERRY Germaine (sortzez IRIBARREN)2023/01/12a
GUIROY Marie-Jeanne(sortzez ETCHEVERRY) 2023/03/09a
CAMINONDO Marie-Jeanne 2023/04/21a
LANDART Philippe 2023/07/09a
ALDAX Henri 2023/08/13a
ETCHEBEHERE Grazi 2023/08/30a
SOULÉ Catherine 2023/10/29a
LAUGIER Alphonse 2023/11/30a

EZKONTZAK

BOURÉ Jessy, Joël eta TESTA CARREIRAS Raquel 2023/04/30a
ARGAIN-ECHAIDE Elisabeth eta THOMAS Julien, Michel 2023/05/20a



HIRIGINTZA

URBANISMO AGIRIAK

GALDEZAILA	PROEIKTUA
AMESTOY Ganix	Etxebizitza
ARTIGUEBIEILLE Jean-Bernard	2 etxebizitza

AURREDEKLARAZIOAK

GALDEZAILA	PROEIKTUA
VASSEUR Christophe	Energia berriztagarri panelen pausatzea
PERUSANSENA Jean-Pierre	Berinen aldaketa
CAMINO Gratien	Pizina baten eraikitzea
ARTIGUEBIEILLE Jean-Bernard	Energia berriztagarri panelen pausatzea
FAGALDE Nicolas et GRACIET Tiffany	Ganbara bat gehitzea garajaren partean eta etxe aitzinaren aldaketa
CHANGALA Jean-Pierre	Erdi lurperatua den pizina baten pausatzea
LATASA Christelle	Baratze aterbe baten eraikitzea
LEKUMBERRY Laurent	Energia berriztagarri panelen pausatzea
CAMINO Gratien	Energia berriztagarri panelen pausatzea
TORO Simon	Energia berriztagarri panelen pausatzea
POLIDORI Christophe	Energia berriztagarri panelen pausatzea
MOULIA Laurence et ALDAVE Nathalie	Lur zatiketa eraikitzeko
LEGARTO Jean	Energia berriztagarri panelen pausatzea
EARL YONKOENIA	Energia berriztagarri panelen pausatzea
ARGAIN-ECHAIDE Isabelle	Pizina baten eraikitzea
UHART Pascal	Energia berriztagarri panelen pausatzea
IDIEDER Xavier	Energia berriztagarri panelen pausatzea
PORTO Christian	Pergola baten pausatzea
LASCARAY Peio	Zaldi aterbe baten eraikitzea
COMMUNE D'OSSES	Lur zatiketa
GNS ENERGIE (AGUERRE J-Michel)	Energia berriztagarri panelen pausatzea
GALLO Laurent	Energia berriztagarri panelen pausatzea
GAEC COMPASENIA	Energia berriztagarri panelen pausatzea

ERAIKITZE BAIMENAK

GALDEZAILA	PROEIKTUA
LUCU Kattin eta TEXIER Louis	Etxe baten eraikitzea
DIBAR Battitt	5 bizitegien sortzea dagoen etxe batean
ONDARS Eugène	Biltzeko aterbe baten sortzea
MARTINON Loic eta FOUROT Lorène	Eraikitze baimenaren aldaketa: zergapean den eremuaren ttipitzea eta garajaren idekitzearen aldaketa
CORDOVA Alain	Garaja zerratu baten sortzea
LEKUMBERRY Maialen	Sabaia baten berritzea bizitegi bilakatzeko
IRIBARREN Michel eta HARISTOY Maylis	Etxe baten eraikitzea
LOZANO Marion	Terrazaren antolatzea bizigela bilakatzeko
GUIROY Xavier eta LABEYRIE Christelle	Biltzeko aterbe baten aldatzea bizitegi bilakatzeko
SOLIVEAU Mickael eta ESCOS Amanda	Etxe baten eraikitzea
MEKERSA David	Etxe baten eraikitzea
ARGAIN-ECHAIDE Isabelle	Garaja baten eraikitzea
GAEC Compasenia	Sabaiako idortegia iguzki panelekin
ERNAUT Gilbert	Biltegi eta bi bulegoen eraikitzea
IDIEDER Xavier	Biltzeko laborantza aterbea
REVELARD Liliane	Etxe hedatzea auto aterbea sortzeko
SAS POTERIE GOICOCHEA	Hegazpearen eraikitzea
BISCAY Vincent	Dagoen laborantza eraikuntzaren handitzea

Diagnostiko nagusiak eginak izan dira (ingurumenekoa, arlo sozio-ekonomikokoa, laborantza arlokoa...). Problematizaturiko lurralde-diagnostikoak, ondoko 10 urteetako garapen perspektiba batzuk (zeinek uztartzen baitituzte laborantza-lurren eta eremu naturalen zaintzea, bizitegien eraikitzea eta enpleguaren garapena) zehazteko bidea eman die Hego Baxenabarreko hautetsiei eta Euskal Elkargoari. Idazketa fasean dagoen Antolaketaren eta Garapen Iraunkorraren Proiektuan (PADD) bilduriko norabide hauek partaide diren eragile publikoei (Estatuaren zerbitzuak, Laborantza Ganbera, Departamendu Kontseilua, Lurraldeko Koherentzia Eskemaren Sindikatu mistoa, etab.) aurkeztuak izan zaizkie 2023ko ekainaren lehenean.


Diagnostikoaren lerro nagusiak, herriarteko Tokiko Hirigintza Planaren norabideak, bai eta herriarteko Tokiko Hirigintza Planak bete behar duen araudia ere partekatzeko gisan, herriko kontseilari guziei eta herritarrei zuzenduriko aurkezpen bilkura publikoak iragan dira Izpuran, Suhuskunen, Larzabalen eta Baigorriin 2023ko ekainean eta uztailan.

Ingurumen- eta paisaia-sentsibilitateak hobekiago ezagutzeko xedearekin, lekuan bereko ikerketa batzuk egin dira udan. Urte hondar honetan eremu arautuen zehazteko lanak abiatuak izan dira.

Hego Baxenabarreko elkargo azpiko Tokiko Hirigintza-Planari eskainiriko argibide-plataforman azterketa-dokumentuak irakurgai daude, lantze-fase osoan zehar: <https://plui-sudbassenavarre.communaute-paysbasque.fr/>

Proiektuaren eraikitzean parte hartu nahi baduzu, zure oharrak idatz ditzazkezu herriko etxean zure esku utziriko kontzertazio-erregistroetan edo gutun bat helaraziz Euskal Elkargoko lehendakariari.

Desmartxa zertan den azaltzeko bilkurak 2024ko udan antolatuak izanen dira.



GAE bat zertarako?

Gaur egun, indarrean den hirigintza dokumentua zaharkitua da, Elkargoko hirigintza dokumentu berria egiten ari da eta zero artifizializazio garbia ezarri behar da.

Testuinguru hortan, eraikinen eta funtsen salmentetan biziki zuhurrak izan behar dugu. Horregatik eta gogoeta lan baten buruan, GAE bat indarrean ezartzea erabaki dugu, herriko mapako eremu eraikigarri parte handiengan behaketa lan aktibo baten egiteko.

Hiru erronka nagusiren arabera zehaztu dugu eremua:

- Eskuhartze publikoa beharko luketen jarrera espekulatiboak detektatzeko funtsen gaineko behaketa bat bermatzea.
- Gaurko testuinguruak baimentzen dituen jarrera espekulatiborik ez gertatzeko funts eraikietan eta ez eraikietan esku hartzea;
- Eremu estrategikoetan funts erreserben osatu ahal izatea, gaur egungo eraikigarritasunari eta gero izan daitekeenari ihardesteko, eta ZAG jokagaiak kontuan hartuz.

GAEko lehentasunez erosteko eskubideari esker, herriak proposamen irmoak egin ditzake balizko proiektu pribatuen parean.

Zein litzateke GAE horren eremua gure herrian?

Leku anitzeko GAEk herriko eremu eraikigarri guztiak hartzen ditu. Karrikaren eta 918 errepide departamentalaren jarraitasunean diren eremu eraikiak soilik erantsiko zaizkio GAERI. Eraikin horiek GAERA sartzea justifikatu daiteke zeren jadanik existitzen den ehunarekin bat egiten baitute, eta gaurko purguarekin multzoak osatzen baitituzte.

GAE baten iraunaldia 6 urtekoa da, gure herrian jadanik egina izan den bezala 2000 eta 2006 artean. GAE berriak, elkargoko THP indarrean sartu arte iraunen du.

GAEk hunkitzen dituen lur sail guzien zerrenda Herriko Etxean ikusten ahal da.

Noizko da GAE berria?

Elkargoko Batzorde Nagusiak onartu eta ontsalaz 2024ko lehen hiruhilekoan sartuko da indarrean.

PLAZAREN ANTOLAKETA

2023 urtean, herri barneari buruzko gogoeta eraman dugu. Hiru hitzorduetara parte hartzeko gomita luzatu ginuen 2023 hastapenean, Ortzaiztar oroeri, Arrosategia, bere parkea eta Herriko etxearen jabetasunen inguruko antolaketa berri bati buruz hausnartzeko eta iritzi eta ideiak partekatzeko. Pantxika Maitia animatzailea deitu dugu hitzordu horien eramaiteko.

Bilkura horiek hiru pausotan eraman ditugu:

- herri barnean gustatzen zaiguna eta beharrezkoa zaiguna adieraziz antolaketa eta zerbitzu mailan baita aldatzekoa edo falta litzateekena ere.
- herri barnean diren Herriko etxeko ontasunak bisitatzeko antolaketa posibilitateetaz.
- antolaketa berri bati hausnartuz zehazki, zirkulazioa eta espazio berdeak konduan hartuz.

Orokorrean, ideia zenbaitek adostasuna lortu dute:

- Herriko etxearen aldaketa Arrosategiara
- plaza berri baten eta aparkaleku baten eraikitzea Arrosategiako lurretan
- eskola publikoaren handitzea eraikin osoari, erran nahi baitu hartuz oraiko Herriko etxearen eremua.
- su-hiltzaileen tokia mugitu herri barnetik kanpo.
- haurren joko eremua utzi den lekuan.




Elkarteen gelentzat, hainbat ideia aipatu dira eta horien artean espazio baten sotzea oraiko su-hiltzaileen tokian, Denen etxean edo Postaren banatze zentroan. Herrian jadanik ditugun zerbitzuendako, ideia orokorra da leku berean kokatzea ahal bezainbat, erran nahi baitu Arrosategian edo inguruan, Florentzenea zaharrear adibidez.

Azkenik, zirkulazioarentzat, posibilitate desberdinak landuak izan dira, erabaki finkorik hartu gabe.

Lanari segida baten emaitzeko, beharrezkoa zen ideia horientzat, posibilitate teknikoak eta gastu errealaren ezagutzea, aitzinatzeko erabakien hartzeko. Horretarako, eskaintza deialdi bat hasi dugu arkitekto taldeei zuzendua. Ondoko egunetan hautatuko dugun taldeak proiektuan lan egingen du antolaketa proposamenak eginez.

HILERRIA ARAUEN ARABERA EZARTZEA:

Azken herriko aldizkarian jakinarazi genizuenez, Herriko Etxeak hilerriko alde zaharra arauen araberkotasunean ezartzeko proiektua hasi du ...



Lehenik eta behin, hilobi guzien inbentarioa egin dugu zenbakiak emanez, eta araberako familia guziak identifikatzen saiatu gira, haier azalpen-gutun bat eta "hilobiak ororen kontseziarako lur-eremu bihurtzeko eskaera" betetzekoa den formularioa igortzeko.

Gisa hortan, 185 hilobi identifikatu ditugu eta familia guziek gutun hau ukan dute. Galdegiten dauzuegu gutun hau lehenbailehen itzultzea, jadanik ez baldin baduzue egina segurik.

Horrekin batera, 2023ko martxoan pankarta batzu ezarri ditugu familiak ezagutzen ez ditugun hilobietan. Afixatze horri esker, eskubidedun batzu identifikatu ahal izan ditugu, baina oraindik familia batzuen bila gabiltza. Oroitarazten dauzuegu 2024/03/01etik goiti, nehork ez badu deus adierazi, Ortzaizeko Herriko Etxeak bazter utziak diren hilobi horiek berreskuratzeko prozedura hasiko duela.

Orduan, gorpuzkinak hobitik aterako ditugu, herriko hezurtegian berriz ehortzeko, ahal bada, edo hautsak barreiatuko ditugu erre ondoan, ondotik antolatuko den orroitzapenezko baratzean.

Arauen arabera ezartzea garrantzitsua da administrazioaren ikuspegitik, alde batetik, baina baita hilerriko helgarritasunaren eta segurtasunaren ikuspegitik ere, gerora gerta daitezkeen berrantolaketen ondorioz.



UDAKO EKITALDIAK

2023ko udan ere ekitaldi zenbait antolatu ditugu, Herriko etxeak berak eta/edo herriko elkarteekin lankidetzan.

Lehenik, azken bi urteetan bezala, Gaueko merkatua antolatu da joan den agorrilaren 9an, eskola publikoko eta Ikastolako burasoekin lankidetzan.

Horrez gain, joan den agorrilaren 23an, asteazken arratsez, joan den urtean egiten ahal ezin izan ginuen kanpoko zinema gaualdia antolatu dugu, aroa lagun aurtengo. "Urte berri on Amona" filma ikusteko parada izan da pantaila handian Ortzaizeko plazan.

Azkenik, joan den agorrilaren 24an, besten bezperan, ostegun astirian, Lak'artea antolatu dugu, hots, herriko eta inguruetako sortzaileen erakustoki bat, Lakan. Hitzordu hau aurten ere preziatua izan da eta sorkuntza berrien ezagutzeko parada izan da, aitzineko urteetan hor ez zirenak.

Jadanik Ortzaiztar eta inguruko herrietako biztanleendako udako hitzordu nagusiak bilakatzen ari diren ekitaldi horiekin segitzeko xedea dugu 2024ean. Oraindik momentu horien ezagutzeko edo berriz gozatzeko parada izanen duzue beraz hain segur.

BIZILEKU EKOLOGIKOAREN BESTA

Joan den urriaren 20 eta 21ean, 7.aldikotz antolatua zen Bizileku ekologikoaren besta errezibitu dugu gure herrian, egitura anitzek parte hartzen zutelarik gertakarian, hala nola Habitat Eco action. Jendea ehunka hurbildu da proposatuak izan diren hitzaldietara, tailer tematikoetara bai eta ekarri lekukotasun desberdinetara. Denek egun horiek goxatu dituzte eskaini animazio eta tokiko mozkiniei esker.



JOSTAGUNEA

Ludoteka asteazken eta ibiakoitz goizetan 10etatik eguerdira idekia da. Jokoak mailegatzen ahal dituzue, urtean 20€-ko urtesari bat hartuz familiaka, eta/edo bertan jostatzeko parada bada. Interesatuak baldin bazirezte, zoazte itzuli baten egiterat gostian. Bernadette-ek ongi etorri goxo bat egingen dautzue. Jostagunean, joko motak aldatzeko nahieran, Zura Lagun, birziklatu egurrarekin arin den enpresak, zurezko joko batzu eraiki ditu ttipi eta handien dibertitzeko. Memorioko jokoak, billar bat, « jenga » handiak... eta hainbeste berritasun bertan deskubritzekoak direnak. 2023an, Ludo64eko 2 langileek 2 animazio proposatu dituzte egurrezko joko handiekin Herrixkako ate idekien eta herriko besten kari.



ELKARTEEN HITZA



BESTA KOMITEA

Aurten ere Ortzaizeko gazteriek hainbat ekitaldi antolatu ditu. Otsailean, ihauterien kari, auzo ezberdinetan hitz ordu bat proposatua izan da, herritar zahar eta gazteek elgarrekin momentu goxo bat pasa zezaten. Milesker hurbildu diren herritarreri eta ongi etorria prestatu duteneri. Egun eder hau Asteburuan bukatu zen.

Agorrilean, egitaraua kargatua izan da besten antolaketagatik. Denbora txarra izanik ere, 4 egun besta horiek bikainak izan dira. Berriz ere milesker hurbildu diren herritarreri baita kanpoko jendeari ere. Urrian, éco-habitat egunean parte hartu dugu. Ekitaldian zehar ostatu bat atxiki dugu, Urzaiz elkartearekin batera. Urte guziz bezala, eguberriko apairua iraganen da, berrien ezagutzeko parada emanen daukuna. Bukatzeko, Ortzaizeko gazteriek herritarrak eskertu nahi lituzke ekitaldi guzietan parte hartzeagatik! Momentu goxo horiek zuekin partekatzea plazer bat izan da. Dударik gabe, heldu den urtean zehar ere hainbat ekitaldi antolatuak izanen dira, eta hain zuzen ere, Ahaize Mendi eta Ortzaizeko bestak

IHIZTARIAK

2023ko ekainaren 6an ihizi elkarteko blitzar nagusia iragan da. Bulego berri bat hautatua izan da. Administrazio kontseiluak izendatu ditu bulegoko kide berriak :

Lehendakari : Cordova Thomas

Lehendakari orde : Biscay Vincent

Diruzain : Lafuente Andoni

Idazkari : Etchegaray Julien

Administratzaileak : Camino Gratien eta Biscay Michel

Talde berri hau edozoin galderari erantzuteko idekia da, izan dadin ihiztari edo herritaren ganik.

Ihiziko permisa pasatzeko edo ihizia hobekiago ezagutzeko ez duda kideetarik hurbiltzea.

Kontaktua : accaosses@gmail.com

Kasu, 2023ko abenduaren 31ko "SIA" kondua sortu behar dute.

Ondoko hilabetetan formakuntza bat antolatua izanen da, ihizi permisa 10 urtez baliatzeko.

Besta on dener !

ORTZAIZEKO IKASTOLAKO BURASOAK

Ikastolak Ortzaize, Irisarri, Suhuskune, Iholdi, Bidarra eta Arrosako hurrei egiten die ongi etorria. Gaur, 67 familia dira ikastolan, 96 ikasle eta horietarik 25 Ortzaizekoak.

Kontratupean den eskola da ikastola, bakotxaren inplikazioa behar-beharrezkoa da ibilmoldearen segurtatzeko.

2023an, ikastolak ekitaldi frango antolatu ditu : bertso afari bat urtarrilean Jon Maia eta Sustrai Colina bertsulariekin, xokoleta salmenta, burger gaualdi bat eta Nafarroaren egunean parte hartzea apirilean, Herri Urrats maiatzean, Mendikleta ekainean, talo saltzea Bidarraiko bestetan, Brik a brak-a irailan, pizza gaualdi bat urrian eta arno eta xanpain salmenta urte hondarrean. Jankinezazue urte osoan zehar erosten ahal duzuela xanpaina, buraso batetatik hurbilduz gero. Milesker ekitaldi desberdinetan parte hartu duten herritarrei.

Ekitaldiei esker besteak beste, obrak eginak izan dira. Hala nola hesi berri bat egina izan da ikastola aintzinean hobekiago aparkatzeko gisan.

Aurten ere, ikastolak Herriko etxeak sustatu ekitaldietan parte hartu du, hala nola agorrileko gaueko merkatuan, eskola publikoko burasoekin elkarlanean. Bestalde eguberriko bakantzen bezperan, ikastolako hurrek ere ongi etorria egin diote Olentzerori.

Ikastolak, ikastolaren baitan antolatzen ditu gertakariak, euskararen erabilpena sustatzeko: kantu poteoak, zinema gaualdiak, zirko tailerrak oreka konpainiarekin, pintxo tailerra, euskarazko liburu salmenta bat Menta liburudendaren partaidetzarekin eta Olentzeroren inguruan mintzaldi bat.



2024ko, huna ekitaldi batzuen berri:

-Urtarrilaren 13an : Bertso afaria Suhuskuneko gelan, Amets Arzallus eta Nerea Elustondo bertsulariekin.

-Otsailaren 10an: Baigurako libertimendiko bazkaria Irisarrin

-Apirila : Xokoleta salmenta eta Nafarroaren eguna

-Maiatzaren 12an : Herri Urrats

-Ekainaren 9a : Mendikleta

-Uztaila: Talo salmenta Bidarraiko bestetan

-Agorrila : Gaueko merkatua Ortzaizen

Xehetasun gehiago nahi baduzue, hurbil zaitezte ikastolako buraso batetaz. edo jin otsailaren 10an antolatuak diren ate idekitzeetara. Ikastolari buruzko xehetasun guziak aurki ditzazkezue www.ortzaizeko-ikastola.net webgunean.

ORTZAIZE-ARROSAKO ESKOLA PUBLIKOKO BURASOAK

Eskola publikoko ikasleen burasoen elkarteak ekitaldi ezberdinak antolatu ditu, diru mailako laguntza bat ekartzeko familiei, hala nola eskolako bidaiarentzat, ateraldi kulturalentzat edo haurren eskolatzeari lotu beste edozein ekitaldientzat.

Frango hitzordu antolatuak izan dira :

- Bixkotx saltzea Arrosako Eguberriko merkatuan.
- Laiako xokoleta saltzea.
- Maiatz lore salmenta okindegi aitzinean maiatzaren 1a kari.
- Arrosa lore salmenta amen bestaren kari.
- Lakako lasterkaldiko bazkaria.
- Ortzaizeko gaueko merkatuan parte hartzea.

Herriko etheen diru-laguntzik gabe eta ortzaiztarren inplikazio eta eskaintzarik gabe, zaila izanen zitzaien buraso elkarteari, jaz, gure hurrei proposatuak izan zaizkien ondoko aktibitate ezberdinen diruztatzea:

- Ateraldi bat Plaine d'Ansot gunera
- « Ikusi mikusi » azokan parte hartzea
- Zinema ateraldi bat
- Ikusgarri batzuetan parte hartzea : «les joues roses», «un contre un», «barraskiloa eta belea»
- Igeriketa astea
- Eskolako besta,...

Eskertzen ditugu ikasleen burasoak bai eta ere Ortzaize eta Arrosako hautetsiak beren inplikazioagatik. Horri esker, urtero erakasleek bideratzen dituzten proiektu pedagogikoak gauzatzen ahal ditugu.

Herriko haurrek eskolako aktibitate guziak balia ditzaten, gomitatzen zaituztegu lehenbailehen buraso elkartean sartzera (izen-emaitea urririk). Zuen parte hartzea behar-beharrezkoa da.



URZAIZ ELKARTEA

Aurten ere, Urzaiz elkarteak segitu du hainbat ekitaldiren proposatzen. 2022 urtea, nahiko kargatua izan baldin bada ere, 2023 urteak ildo beretik segitu du aitzina : kulturaldi, bazkari, dantza kurtso etab.

Haurren euskal dantza kurtsoak: Aitzineko urteetan bezala, haurren dantza kurtsoek segitu dute Ortzaizen. Iparraldeko Dantzarien Biltzarraren laguntzarekin, 50 bat haurrek aste guziz euskal dantzak ikasten dituzte Denen etxean.

2023ko ekainean dantzaldi bat aurkeztu ahal izan zuten herriko plazan Kulturaldiaren karietara.

Nafarroaren eguneko desfilea : Apirileko azken asteburuarekin, kabalkadako dantzaile multxo eder batek, Nafarroaren Eguneko desfilean parte hartu du. Eliza ondoko plazan, "Ortzaiztarrak" mutxikoak eman eta egun goxo bat elgarrekin pasatu ahal izan dugu.



Parte hartzaileen artean berriz biltzeko parada izan da, kabalkadako oroitzapenak burutan.

Ekaineko kulturaldia: Urzaiz elkarteak bere lehen kulturaldia antolatu du ekainaren 21etik 23ra. Helburua ? Urtean zehar, euskal kulturari eta euskarari leku baten eskaintzea. Lehen edizioa biziki giro goxoan iragan da: liburu aurkezte Mentan, Lumi eta Habiaren kontzertuak Goicoechea poterian, bertso afaria Etxeberriako ezkaratzean.

"Faites" de l'éco-habitat ! : Ortzaizeko gazte komitearekin batera, Urzaizek ostatua atxiki du. Goizean, kafea eta xokolatinak proposatu ondoan, bazkari denboran arno, biera eta hainbat edari xerbitsatu ditu. Urriko egun eder bat izan da.

Euskararen Urtaroa : Elkarteak ere parte hartu du Euskararen urtaroan, hiru eguneko programazio bat proposatuz Herriko etxearekin partaidetzan.



ORTZAIZEKO BIZIA



Kabalkadaren urtebetetzea : Abenduaren 23an, parte hartzaile andana bat bildu da Asteburua ostatuan, kabalkadaren urtebetetzearen ospatzeko helburuarekin. Bazkari baten inguruan jendeak berriz bildu dira, errepiken oroitzapenak aipatuz !



Ondoko proiektuak: 2024 urtean, Urzaizek ber maneran ibilitzeko xedea du, hala nola, haurren dantza kurtsuak segituz.

Ekainaren 20etik 22ra, kulturaldiaren bigarren edizioa antolatuko du elkarteak.

Bestalde, Urzaizek antzerki proiektu bat abiatu nahi luke 2024ko udatik aitzina, 2025eko ekainean antzerki baten emaiteko helburuarekin.

Proiektu hau, Arantxa Hirigoyen taula zuzendariaren laguntzarekin iragan liteke. Ortzaiztar antzerki zale guziei mezua pasarazten dugu ! Ez duda gurekin aipatzea interesatuak bazizte !



Azkenik, elkarteak hurbildu nahi duen bakoxtari ongi etorria egiten dio, zuk ere ber helbururekin engaiatu nahi baduzu herriko elkarte batean, ez duda eta jin gure ikustera !



ORTZAIZEKO BIZIA

ARRANOAK



Arranoak taldeko jokalariek 2023 urte eder bat burutu berri dute. Oraindik bi ekipa engaiatuak ditugu 11ko eta 7ko txapelketetan. Aurten berriz, lehen ekipak balentria ederra lortu du Dargains kopako txapela eramanez. 3 urte berantago kopa berriz Ortzaizera itzuli da. Orroitzapen frango gure urdinentzat, izan Ortzaizeko erdi finala jendetsua edo Paueko final eguneko giro paregabea.

Txapelketa bigarren postuan burutu dute, lehena baizik mailaz igaiten zenean. Heldu den urteko helburua finkatua beraz! Bigarren ekipak igande goizeko freskotasunean, giroa eta plazerra lehenetsiz bere abenturak segitzen ditu.

Arranoak taldeak bere partaide ezberdinak eskertu nahi lituzke, herriko etxea baita laguntzen diguten enpresa ezberdinak. Bertzalde, ortzaiztarren sustenguaren eske etorriko gira berriz ere urtarrilan egutegiaren banaketa ohikoaren kari. Eskertzen ditugu Ortzaiztarrek horien harreragatik. Laguntza horri esker 2024an, gure klubak bere 43. urtea hasiko du!

GARBI

GARBI elkarteak, San Mixel ikastetxea, Etchebestia, ezker pareta eta zinema gelaren kudeatzailea da. Aurten ere herriko bertze elkarte batzuei, herriko jendeari eta kanpoko parte hartzailei ezker pareta erabiltzeko okasionea eman dugu.

Izan ere, plazer handia da gazteak edo helduak hortaz profitatzen ikustea.

Aurten, zombait animazio antolatu ditugu gure funtzionamendu gastuen eta lan batzuen pagatzeko: matahamien salmenta, tripa salda bai eta ere ihiziko xakur lehiaketa.

Ortzaiztar guziak 2024-eko animazioetan parte hartzera gomitatzen ditugu.

Aitzinetik milesker zuen sostenguagatik!




HERRIKO ZERBITZU SOZIALA

HUNA HEMEN hurbileko zerbitzu zonbaitzuen izen eta zenbaki telefonoak zuen laguntzeko arlo desberdinetan: sozialan, medikuntzan, bakotxak bere autonomia beiratzeko, etxean untsa xahartzeko...

- **Buzbu, bereber eta urririk ari den zerbitzu soziala**


Gizarte laguntzaile diplomatu batzu, zuen etxerat heldu dira aterabideen atxemaiteko sozial arloko gaier. Zuen beha egoiten dira, zuen arazoa aztertzen dute eta laguntzen zaituztete aterabideen atxemaitea. Zerbitzu hau idekia da bakarrik bizi diren 55 urtetik goitiko presunei, adinetakoei edo laguntzaileei.

Jorratzen diren arloak hauek dira: bizitegia, elbarritasuna, familiak, lan mundua, eritasuna, zoin diren eskubideak...

 06.73.16.06.92


- **Goxoki Etxean, untsa xahartu etxean geldituz :**

Talde batek (erizain koordinatzaile bat, ergoterapeuta bat, dietalari bat eta psikologo bat) urririk proposatzen ditu ebaluazioak, aholkuak eta segipenak etxean. Adinetakoei edo/eta hurbileko ala profesional laguntzaileei zuzenduak dira zerbitzu horiek.

 06 30 10 24 99 / 05 59 37 48 22

- **Atxiki tailerrak (urririk) Ortzaizen autonomia galtzeari aurre egiteko**


- memoria lantzeko tailerrak
- oreka tailerrak erortzeko arriskuen saihesteko
- gaitasun fisikoak atxikitzeke psikomotrizitatea landuz

 07.85.46.07.92

- **Asalee : mediku eta erizainen arteko elkartea**

Osagarri Publiko zerbitzu bat da urririk dena.

Erizain batzuek zuen medikuarekin lan egiten dute zuen eritasunaren hobeki konprenitzeko eta laguntzeko egunerokoa untsa kudeatzen.

 Béatrice Lafuente 07 45 55 04 94
Hélène Maitia 06 70 35 57 89

ADINETAKOEN BAZKARIA

65 urte goitikakoen urte hondarreko apairua Asteburuan iragan da 2023ko abendoaren 21ean. Biziki momento atsegina izan da, apairu ezin hobearekin, kalaka frangorekin eta lauak irian, etxerat sartzeko tenorea jin da, denak kontent zirelarik halako denbora goxoa pasaturik.

Gure xaharrendako, Eguberri garaia izanki, tokiko ekoizleen mozkin onak eskainiak izan zaizkie eta sustut, bisita bat, denek preziatzen duten oparia.



XERRENDA GUNEAN: ETXE LEKU BAT LIBRO

Xerrenda gunek 8 etxe leku zituen. Azken bi urteetan, zazpi erosle agertu dira. Berrikitan, hauetarik batek gibelera egin du. 751 metra karratuko lur zati bat libratu da beraz. Interesatua bazirezte, zuen galdea herriko etxera helaraz ezazue, gutunez. Jakin ezazue, Ortzaiztar gisa, lehentasuna emana izanen zaizuela.

CH'TI MECANO GARAJAREN EROSKETA

Urte hondar hontan, Bert jaunarena zen Ch'ti mécano garaja erosi du Herriko etxeak. Plazan kokatua denez, herriak kudeatzen dituen ontasunen erdian, horren jabe izaiteak herri-erdiaren antolatzekeo posibilitate gehiago uzten du. Mementoan, barne hori besta komiteak erabiltzen du.



HERRIKO LANGILEAK

Marie Trounday (Etxeko Bordakoak) ordezkatu du Marie-Dominique Jorajuria (Bordeikoa) ATSEM postuan. Marie-Dominiquek ontsa merezitu erretreta hartuko du urtarrila hondarrean. Marie otsailaren lehenean hasiko da beraz eta eskola publikoko errientsak lagunduko ditu.

Joan den buruiletik, hurrek baldintza goxoagoetan jan zezaten, Marie Trounday kantuan lanean ari zen bi orenez, 11.45-13.45 artean, hor ziren langileen lauzkatzekeo. Lan postu hau libratzen da beraz otsaila hastapenetik goiti. Interesatuak baldin bazirezte, herriko etxeari jakinaraz ezazue.

2023. urtean, prezioen goitizeari buru egiteko Ortzaizeko Herriko etxeak erabaki du erosahalten prima berezi bat eskaintzea herriko langile guzietan Estatuak finkatu baremoaren arabera. 3879€ hortan erabiliak izan dira.

HERRITAR ZERBITZUA

Bigarren urtekotz, Eskola publikoak herritar zerbitzu batentzat herritar gazte bat hartu du. Izan ere, Herriko etxeak gazteer lehen esperientzia bat eman nahi du eta horrela beren bidea atxemaiten lagundu. Jaz, Marie Troundayek (Etxeko Borda) urtez batez laguntza hori baliatu du. Aurten, Amélia Valbousqueten (Iriberrigarai ttipia) txanda da. Bi gazte hauek 9 hilabetez, Estatuko eta Herriko etxeko ordain bat ukan dute eta tokiko misioaren laguntza ukan dute beren etorkizuneko ibilbide profesionala eraikitzeko.

ESKOLEN HITZA

ESKOLA PUBLIKOA

Eskola publikoak, 2022/2023 ikasturtean 46 ikasle errezebitu ditu PS etik CE1 arte.

Proiektu desberdinak eremanak izan dira, ateraldiak, baita ere elkarte batzuen laguntzarekin gai desberdinak landuak. Hala nola, CPIE arekin gogoeta bat ura eta erreken inguruan ; Bil ta Garbi elkartearekin hondarkinen bereixtea , berziklatzea eta natura zaintzea. Proiektu eder bat ere gogoan atxikitzen, Sarde Sardexka elkartearekin eremana, elikatzeari buruz tokiko mozkin batzuen ezagutza, jastatzea eta jateko molde sanoaren aipamena. Proiektua bukatu da Pintxo gaualdi batekin, denak hurrek prestatuak eskolan, aitatxi ,amatxi edo burrasoen laguntzarekin . Partekatze momentu goxo bat ! Urte guziz bezala, eguberri ospatu dugu Arrosako eskolarekin. Parada ttipi bat bi eskolak elgarretartzeko askari goxo baten inguruan, kantu batzu emanaz burrasoaren aitzinean.



Eguna bukatzeko Olentzero Gauda ospatu dugu, Ortzaiako karrikan Olentzerorekin ibiliz eta kantatuz .

Aurten, RPI ak bere urtea bururatu du ikusgarri bat muntatuz bere eskolako bestarentzat. Urtean zehar prestatua, bidaiatu gira kontinenteak deskribituz eta denbora berean hango musika, kantu eta dantza batzu ikasiz. Azken eguna ere elgarrekin pasatu dugu Baionako Plaine d'Ansot eremuan, hango lekua goxatuz aktibitate batzu eginez eta piknika bat partekatuz!



SAN MIXEL ESKOLA

2022/2023 urtean zehar, San Mixel eskola pribatuko haurrek egunero umore onean ari dira ikasgai guziak lantzen bai eta ere elkar bizitza eta kooperazioa emendatuz.

Euskara denbora erdiz proposatua da eta gauza biziki ona da hizkuntza eta euskal kultura bai eta ere frantses hizkuntza ikasteko.

Klase bakarreko antolaketarekin haurra kuskur pibilegiatu batean handitzen da eta autonomia bilakatzen da.

Horri esker haurrek elkar laguntzaren, partekatzearen eta anaitasunaren garrantzia neurtzen ahal dute. Balore horiek biziki inportanteak dira hezkuntza katolikoarentzat.

OGEC-ari esker eta buraso elkarteak antolatzen dituen ekitaldiei esker (kantaldi, eguberri aitzineko egutegien fabrikatzea, bixkotx salmentak, Ball-trap) haurrek eskolako ateraldietaz eta musikoterapiaz gozatu dute.

Bestalde, obra batzuk ere eginak izan dira berogailu sistema arraberritzeko.

Urtea untsa hasi dugu Garazi-Baigorriko hirigune elkargoak proposatzen zuen konkurtso batean parte hartuz eta sari bat irabaziz. Freska handi bat egin dugu urari buruz eta gauza berziklatuak erabiliz. Obra horri esker proiektuak sortzen ari dira eskolarentzat baina gehiago jakinen duzue helduden urtean.

Ulertu duzue eskola ttipi hortan giro bero eta familiara badela.

2024 eko urtearentzat izen emateak idekiak dira. Eskola deskubritzeko edo arradeskubritzeko harremanetan sartu eskolarekin telefonoz 05.59.37.78.58 edo mailez ecole-st-michel64@orange.fr.

Plazer handi batekin errezebituko zaituztegu.



ORTZAIZEKO IKASTOLA

Ortzaizeko ikastolan 2022/2023an 100 ikasle pasarekin bukatu genuen ikasturtea. Aurtengoa 95 ikasleekin hasi dugu.

Urte guziz ate-idekiak antolatuak dira: ikastola ikus daiteke gelaz -gela eta ikustera jiten diren burasoek irakasleei pedagogiaz galderen pausatzeko parada badute, haur hezkuntzan eta lehen mailan zer egiten den, nola egiten den, zer proiektu lantzen diren...

Elkartearen burasoen ordezkariak ere egun hortan ikastolan egoten dira elkarte eta Seaskaren ibilmoldearen azaltzeko.

Ondoko ate-idekiak 2024ko otsailaren 10an iraganen dira.


2022 / 2023ko urteko proiektua: Inguramena

Urte guzian Inguramenaren behaketa eta zaintza landu genituen haur hezkuntzan eta lehen mailan. CPIE, Bil eta Garbi eta Sarde- Sardexkako partaideak gonbidatu genituen ikastolara. Ingurumen zehatz batean, ikasleek molde konkretuan egoera desberdinak bizi izan zituzten: Euskal Herriko fauna eta floran ditugun altxor batzuk ezagutu zituzten, bestalde kutsaduraren ondorioez ohartu eta zaintzeko jestu onak ikasi zituzten. Azkenik elikadura katea, tokiko ekoizpenen sanoak eta orekatuak ezagutu eta jastatu zituzten. Azken atelierran gurasoek ere parte hartzeko parada izan zuten. Ikasleek denentzat pintxoak apailatu zituzten haien sormena piztuz, pintxo ezin ederrago eta hautak prestatuz denentzat. Giro goxo goxoan, denak loritzeko gisan!

Horrez gain urte guziz bezala ikasleek Sarako Ikusi Mikusi Haur eta Gazte Literatura festibala, antzerki eta zinema ikusgarriak, Jolas Bizi joko kooperatiboen topaketa, bertsulari ttipi, ateraldi kulturalak gozatu zituzten. Bestalde urte bukaerako Baigorriko Oronozian eta Nafarroako Arantzan egindako egonaldiek ere beren baitan memento bereziak markatu zituzten.



EUSKARAREN URTAROA



Joan den azaroan, Euskararen Urtaroaren kari, asteburu batez ekitaldiak antolatu ditugu Urzaiz elkartearekin batera.

Asteburua azaroaren 17an hasi zen, ortzirale gauarekin, Aranzadi elkarteko Mattin Aiestaran eta Juantxo Aguirre Mauleon arkeologoak entzuteko parada izan dugu herriko jantegian, Irulegiko eskuaren deskubritzeari buruz. Gaualdi arrakastatsua izan da.

Biharamunean, Axut! eta Artedrama antzerkilari konpañiek eman "Hondamendia" antzerki obra dentso bezain ederra ikusteko parada izan dugu Goicoechea poterian, Zaldibar-en gertatutako zabortegiko istripuan eta Covid krisia garaian bizi izan ditugun etxealdietan oinarritzen zena.

Azkenik, azaroaren 19an, igandearekin, Asteburua ostatuan Bañolet euskal filma parte hartzailea ikusi dugu, egileak auzo herrietakoak direlarik.

Euskara eta euskal kultura biziartzten segitzeko asmoz, eskertzen ditugu hurbildu diren guziak eta desiratzen dugu 2024eko euskarak leku gehixago eskuratzea gure herrian.

ONDAREIZULA

Elizari buruzko zikloa bururatu da aurten. Hainbat ekitaldi antolatu ziren eta proiektu horren baitan ikasi guziekin, elizan urtarril hontan instalatuak izan dira informazio taulak, elizaren istorioa oroitarazten dutenak. Informazioa taula horretan berean bideo bati buruzko lotura atxemanen duzue, elizaren arkitektura esplikatzen duena eta herritarrekin egin ginuen "Ezkilaren taupadan" filmari buruzko lotura ere.

Beste taula bat ere pausatua izan da, haurrek sortu zuten obraren ondoan, honen xedearen esplikatzeko.

Azkenik, laster azken taula bat pausatua izanen da, ezkila ttipiaren ondoan, azken hau instalatua izanen denean.

2024ean, gai berri baten inguruan lan egiteko xedea dugu kultura mailan eta hori eraikitzen ari gira pixkanaka, zuekin laster partekatzeko.

OLENTZERO GAUA

Azken bi edizio arrakastatsuen ondotik, Olentzero gaua berriz egin da abendoaren 22an hiru eskoletako erakasleen laguntzarekin. Aurten, hiru eskolak elgarretaratu behar ziren plazan ikazkin famatuari ongi etorri bero baten emateko. Zoritxarrez, aro euritsu batengatik, partehartzaile guziak ezker paretan aterpetu dira.


Euria izanik ere, familia anitzek deialdiari erantzun dute Olentzeroren (eta su handi baten) inguruan kantatzeko.

Kantuen ondotik, euskal dantzak ikasten dituzten haurrek hamar bat dantza eskaini dazkote ikazkinari. Hortik landa, dantzatu nahi zuten partehartzaile guziek mutxiko batzuk eman dituzte.

Untsa bukatzeko, zintzur bustitze partekatu bat egin da.

Bi pertsona eskertu nahi ginituzke. Lehenik, Mitou Goicoechea, aurten ere berriz jin baita haurren laguntzera eskusoinua joz. Bigarrena, Jean-Pierre Indaburu bere astoarekin mendi kaskotik jautsi baita Ortzaize herrira...

Olentzero, itxaropen mezulari bat den bezala, holako gaualdi eder batek erakusten dauku euskara eta helburu baten inguruan herritar guziak biltzen ahal direla. Milesker Olentzero eta heldu den urte arte!



HERRIKO ERAIKINAK

2023

- Herriko Etxearen gaineko apartamentu bat osoki berritu dugu.
- Apezetxea etxeko apartamendu batean sukalde berria ezarri dugu.
- Eskolako eta Herriko Etxeko argiterian LED bonbilak ezarri ditugu.
- Apezetxea etxearen kanpoko aldea eta Florenzarena etxeko kanpoko leihoak tindatu ditugu.
- Ezker paretan argia pasatzen uzten duten panelak aldatu ditugu.
- Haurren jolastokiaren zola arraberritu dugu.

BIDEAK

- Uxarako bidean, Irigoizetako bidean, Basarannerrekako bidean eta Basagaitzeko bidean mundruna ezarri dugu.
- Karrikako araztegirako sarbidea lekuz aldatu dugu.
- Urbazterreko bideko euri uren sarea berriz egin dugu.
- Autopartekatze gunea osoki berriz egin dugu.
- Zubi Alde zubirako sarbidea 3.5 tonara mugatu dugu, egoera txarrean delako.



SAREAK

- Pilota plazatik Ikastolarako argiteria publikoa LED bonbilekin ezarri dugu.
- Herriko Etxeko karrikan, sare elektrikoaren lurperatzea eta azkartzea egin dugu, Arrosategian transformazio postu bat instalatuz.
- Euskal Elkargoarekin lankidetzan, Irisarri-Ortzaize eta Arrosa-Ortzaize ur edangarriko sareak elgarren artean lotu ditugu.

ASEGURANTZAK

- Asegurantzak kontu guztiak aztertu ditugu, eta berriz negoziatu konpainiak haien arteko lehia emanez.

HERRIKO ERAIKINAK

- Denen Etxean berotze sistema birazkaria ezarriko dugu.
- Ezker paretako elektrizitate armairua berriz eginen dugu eta argiteria LED bonbilekin ezarriko.
- Jolastokiko, ezker pareta aitzinean eta posta banaketa gune gibelean arbolen garbitzea eta segurtatzea.
- Mendilahatsiko kanpoko leihoak aldatu eta tindatuko ditugu.
- Ezker paretako teilatu-bazterrak, teilatu-hodiak eta atepak aldatuko ditugu.
- Jantokiko kanpoko pareta tindatuko dugu.
- Jantokian isolamendu fonikoa ezarriko dugu.

2024



BIDEAK

- Xapeleneko bidean, Pagaluzeko bidean, Bertranttipiko bidean, Martingazteeneko bidean, Urbazterreko bidean eta Murgialdeko bidean 2023an mundruna egin beharra zen, baina 2024ko urte hastapen honetan eginen dugu.
- Barrandegiko zubiaren azkartzea eginen dugu
- Zubi Aldea zubiaren berriz egiteko ikerketa abiatuko dugu

SAREAK

- Ahaize auzoko elektrizitate, telefono eta argiteria publikoko sareak lurperatuko ditugu.
- Ahaize auzoko ur edangarriaren sarea indartu eta berrituko dugu.
- Auzoa segurtatuko dugu suhiltzaileendako iturburu bat emanez.



- Garapen iraunkorraz arduratzen den talde idekia bildu da primadera hontan gogoetan diren gaiak aipatzeko eta maiatzaren 29ko erreka garbitzea prestatzeko.
- Joan den urteko erreka garbitzeari esker, berriz ere ondarkin frango bildu dira. Goiza LOKARRI-k apailatu bazkari batekin bururatu da.
- Argigailu publikoak goizago itzaltzen eta berantago pizten dira orain eta, emeki emeki, LED lanpek lehengo fluoak ordezkutzen ari dituzte.
- Klimaren astea urriko bigarren astean iragan da, gaia ura zelarrik. Eskola pribatuak eta publikoak parte hartu dute eta saristatuak izan dira.
- Iguzki panelak ezker paretako teilatuan eman ditu IENER-ek primadera hontan eta laster sareari lotuak izanen dira.
- Zubialde eta Lakako arboletan eraman behar diren lanak (platanoen kapetatzea, zurzurien moztea) Senpereko loritz Madariagaren enpresak eginen ditu negu hontan.



- Metanizazio kolektibo bati buruzko gogoetak bere bidea segitzen du. Gidaritza batzordearen azken bilkura joan den primaderan iragan da eta honen ondorioak baikorrak dira.
- Konpostagailu kolektibo bat ezarria izan da larrazken hontan elizaren gibelean eta martxan da. Herriko Etxetik pasatuz, konpostaren ezartzeko zego bat eta esplikazione batzu ukanen dituzue.
- Landatze proiektu baten aztertzen ari da Herriko Etxea: Ortzaiztar bat, arbola bat. Bilkura publiko bat eginen da, proiektu honek interesatzen dituen guziek parte har dezaten.

GURE GAIN ELKARTEA

“Gure gain” elkarte berria sortu da Bidarrai, Luhuso, Makea, Lekorne, Heleta, Irisarri, Arrosa eta Ortzaize herrien eremuan. Elkarreak, 8 herri horiek eta hauen Mendiko Lur-funtsen Elkarreak (AFP) biltzen ditu Artzamendi, Iparla, Baigura, Larla, Jara mendiguneen inguruan. Lurralde honek laborantza aktibitate emankorra du (340 etxalde) eta talde berri horren helburuak dira:

- laborantza-ekonomia begiratu eta garatu mendiko eremu horretan.
- mendi-laborantza eremuei balioa eman.
- laborantza eta eremuko biztanleak elkar uztartu.

Kalitatezko ingurumena atxikitzea gure herrietan laborantza dinamika atxikiz da helburu nagusia.

Elkarrearen nahia da proiektu kolektiboak sortzea, horiek gauzatzen laguntzea eta horien aplikatzeko interesa duten partaideekin loturak finkatzea. Hurbileko animazioari esker, laborarien, kudeatzaileen eta lurraldeko egituren arteko topaketa, truke eta gogoeta-guneak sortu nahi ditu.



Elkarrearen kideek Lucie Trognon, animatzailea, eskertu nahi dute lan berezia eginik elkarte horren sortzeko. Charline Verdier-ek animatzaile postua hartuko du urtarrilaren 8tik goiti.

Elkarrearekin harremanetan sartzeko :

Gure Gain
21, Herriko etxeko bidea
64780 Arrosa



asso.guregain@gmail.com



Charline Vernier: 07.88.44.24.86

Elkarreak ekiltaldi egun bat antolatu du 2023ko urriaren 7an, Arrosan. Laborariak eta laborantza egiturek gaur egungo gaiak eztabadatu dituzte (enplegu partekatuak, talde erosketak...).

Ortzaizeko ordezkariak elkartean Jean-Claude Iriart eta Jef Matéo dira.

LANDAREEN XEHATZEA:

laz bezala, iragan udaberrian, laborantza batzordeak Larramendi eta Antzaramendi gunetan 45 hektarea xehatu ditu, kabalak bazkaleku horietan hobeki garatzeko xedearekin. Aurten, gauza bera egingen dugu beste leku batzuetan.

EUSKAL ELKARGOKO LABORANTZAKO PROIEKTU DEIALDIAK

Ortzaizeko bi hautagaitza atxiki dituzte:

- « Etxalde berritzaile eta praktika agro-ekologikoak » kategorian:

EARL ABATX (Stéphanie Ansola eta Bruno Dublanc), ardi hazkuntzan euri uren biltzeko proiektuarentzat.

- « Produktu berriak » kategorian:

Constance Idiart, mendiko pottoka behorren esnearekin eginiko kosmetiko marka baten garatzeko proiektuarentzat.

NATURA 2000 DESMARTXAREN BILDUMA BAIGURA MENDIARI DOAKIONAZ

“Habitats” europar direktibatik sortu da.

Helburua: interes komunitarioa duten landare eta abereen bai eta habitat amankomunen atxikitzea edo berpiztea segurtatzea, begiratze molde egokian.

Helburu dokumentuen lana (DOCOB) honela banatzen da:

1) Diagnostiko ekologikoa (2015ean egina eta 2019an aurkeztua).

2) Diagnostiko ekonomikoa kondutan hartzen duena:

* Biztanlegoaren bilakaera.

* Diagnostiko ekonomikoa kondutan hartzen duena:

Turismoan

Ihizian

Oihanetan

Laborantzan

Artzaingoa

* PAC-arekin jokutzen dena Natura 2000-eko guneekin

Diagnostiko hau osoki irakurtzen ahal duzue Herriko webgunean edo zuzenean Herriko etxean.

Abendoan, DOCOB ontzat eman dugu. Epe luzean erabil daitekeen helburuen lantzeari eskainiko da 2024 urtea.

NAHAS MAHAS

HELBIDERATZEA: PANOEN PAUSATZEA

Denbora luze bat pasatu ondoren, ohartu zaitezketen bezala hain segur, panoen pausaketa abiatua dugu azkenean. Hau, pixkanaka egiten ari gira eta laster bide guzien panoek pausatuak izan beharko lukete. Etxe bakoetxeko zenbakien panoak ondotik egingen dira.

2024eko denek beren lekuan beharko lukete!



HERRIKO ETXEA ETA GARBIREN ARTEKO ELGARRIZKETA

Herritar guzien onetan, elgarrizketak segitzen ditugu Garbi elkartearekin.

2023ko maiatzeko lehen gutun batekin, herriko etxeak proposamen bat egin zion elkarteari, zinema gelaren alokatzaile izaiteko, “bail” delako baten bidez. Herriko etxeak jakinarazten zion Garbi elkarteari xedea zela zinema sala osoki arraberritzea, ikusgarri gela segurtatu baten egiteko, herriko hiru eskoler bai eta ere elkarte guzietan idekia izanen zena.

Ekainean, mahai baten inguruan bildu ziren Herriko etxea eta Garbi.

Azaroan, bigarren gutun batekin, gure proposamena berriz orroitarazi diogu elkarteari.

Abendu bukaeran, Garbiko administrazio kontseiluak erantzun digu, xehetasun batzuk galdegiteko gure xedeer buruz.

Esperantza atxikitzen dugu ondoko hilabeteetan urrats baikor batzuk egiten ahalko ditugula aterabide bati buruz.

NAHAS MAHAS

ZUNTZ OPTIKOA


Zuntz optikoaren hedatzea beti bidean da Ortzaizen. Orainokoan, Iriberry eta Ugarzan auzoetako etxe guztiak gabe dira, eta han hemenka beste etxe batzuk ere lotzekoak dira oraindik. Egin ahalak egiten ditugu zuen etxeetara lehenbailehen helarazteko. Zure etxea sareari loturik den ikusteko, <http://thd64.fr/> webgunean konektatu behar duzu eta « carte d'éligibilité » atalera joan. Zure etxearen gainean argi berde bat ageri bada, zuntza hor delaren seinalea da. Zuntzari lotu harpidetza bat nahi baduzue, operatzaile bat kontaktatu behar duzue eta azken urratsak haiek eginen dituzte, urririk.

Etxe berrien jabeek haatik, etxe berria webgune berrian behar dute deklaratu « Déclarer une nouvelle construction » atalean.

XPFibre enpresak, etxe berria sareari lotzea 660€ fakturatuko dio etxe berriaren jabeari. Edozein galdera baldin baduzue, deitu Herriko etxera.

TAILER NUMERIKOAK

2023ko martxoan eta apirilan, Ortzaizeko Herriko etxeak tailer tematikoak antolatu ditu La Fibre64-ekin, ordinagailu, tableta edo telefono mugikorrekin. Gai desberdinak barneratu dira :



Tailer hauek deneri idekiak eta urririk ziren. 30 Ortzaiztarrek beren ezagutzen hobetzeko parada ukan dute bi orren irauten zuten tailer horietan.

INFORMAZIO BALIAGARRIAK

Trabagarrien bilketa eguna otsailaren 10an izanen da. Herriko etxearekin harremanetan sartu behar zirezte zerbitzu hori baliatu nahi baduzue.

Baigorriko Hondakintegia:

- asteart eta larunbatetan:
9:00-12:00; 14:00-18:00
- ostegunetan: 14:00 - 18:00



Donazarreko hondakintegia:

- astelehenetan: 14:00 - 18:00
- asteazken, ostiral eta larunbatetan:
9:00-12:00; 14:00-18:00

Herriko etxea:

Astelehen-Asteart-Ostegun-Ostiraletan: 13:30- 18:00
Asteazkenetan: 9:00-12:00



idazkaritza@ortzaize.eus



05.59.37.74.62



Ur deipea:
0637821167



EDF deipea:
0972675064

32